

Ona Luix Mari Maxika'ren olerki liburua; extago neuritzet ze idatzia, bainha oso olerkitsua dugu. Arnas berri gaiñezka datorkigu lendik ere gure alidizkarian ezaguna dugun gazte au. Liburua bera ezta edonolan egia, ta bere izkuntza arnasa ta gogo berriz kemendu nai du asieratik azkeneraifio.

Bide-giroak! Begi-ernai bidez dabilera susmatu ta nabi izandako barren-giroak? Orix! Bitarikoa, barrenkoia ta Izadian eurrez ereindakoa dugu olertia. Arzen gizaldiotan olerkari sail bi ikusten ditugu batez ere munduko literaturan: batzuk, Espaiña'n Espronceda, Prantzi'n Musset, Inglaterra'n Byron eta gure artean Arrese-Beitia bezela, edatu, txundiotsu ta jaiki jardunak dira, ta olerki apain jantzia dugu auena. Beste batzuk, askotaz errikoago, labur, azal errez, eutsi ta tati, azia jo ta durundi gozoan dardaraz gelditu dabilta; badablotz-jario ezarizkoa, pentsamentuaren zalantza, eguzkiak sartzerakoan bezain argi illunkoia; guzti au albait eta errikoien esan eta adierazirik. Bigarren joera au da, gaur ere, bizi-bizi dabilena, naiz sinbat bide-kurutze izan bere barruti eun kolorezkoan.

Gure olerkari gaztea ere bigarren bidetik dabil; izadian ditu bidez doala makiña bat edergai; guztioek dardaratzentz diote anima barrua, ta bere gogo-zirkuen ego-ikutuak dira liburuan itsatsita labur ta zalu utzi dizkigunak. Gogo-dardarok, alaere, bertsoz adierazi ba'lltu, obeto legokezan, azal apaifiak ere asko esan nai du-ta.

Infundik ere bide barri-zaleak fera, inforenarekin bat etorri ezifiak noski. Muxika'k ere, bide ta giro, arnasa ta asmo berriz illuratu nai izan digu bere poema. Asmostu baitira gazteak, beraien jardun leialak txalotzea komeni zaigu; geroa berena dute. Zarrok azia utzi bear diegu, bere garaian erne, azi ta garatu dedin. Betoz ondoren gazte-saillak, bekoki-lerden.

Jomuga berezia erabili du Mux'ka'k bere poema osatzerakoan: gogakia ta gaikia (izpiritua ta lurra) batean korapillatu nai izan ditu. Kristo, izan ere, Gogo-uts zilarik, gaiaz jantzi zan Gizon egitean. «Poema —dio egileak— Jainkoa pertuagoten duen alako zerbailea bailetan eskeintzen da, edo-ta, espiritu-arkibidea aragitzea lankidetzen duen beste edozer bezela (8 orr.). Izadiko zentzun-gaietan dirdir dagi jainkozko edertasunak. Izadiko gaiok ere Kristo'k ber-erosi zitun. Poesiak, ordea, xotiltasunes mamiturik baldin ba'dago, «espiritu ber-sortu oi dus» baita barne-kemenak biztu ere, Jainkoa errezago idoro

ta ikutu dezan. Ona egileak argi: «Poemak Jainkoz arsatutako Mundua azaitzen du, bañan Kristo-Gizonduaren eritez, Jainko-ikuspenez kutsututako Mundu erosia ta gertzia batez eres (10 orr.).

Olerkariak, beñola gurutz-abean Kristo'k Altari bezez, Kristo'rekin eta Kristo'ren izenean, bere barren-izazari begira opari eskeintzen du, bere barrenean arnas bertiz ezur-aragitu ditun dei ta asperenik gartsu eztiena-arriz antolatua. Apaiz gazte da, ta, opa-maira igorik, Altari eskeinten dio Kristo'k odolez erositako Izadi osoa; opari apalias, Izadiaren frutua dan ogi-ardoaren oparia, mundu zabalsakonaren oparia. Eskeintza onek, berriz, Kristo'ren Erospenera bildu dan gaiaren gardentasuna du bere baitan; orrela Jainkoa ta Gaia alkartzan dira beñaka estu bigunean.

Au dezu poemaren guna. Garia ta matxa, oparigaiak. Bidez doala edozenbat aurkitu ditu egileak. Orain esku man gero ezkerrean, ainbat gauza begiz jo, barnean itxuli, oretu ta egokiturik, Jaunari opaide dizkio.

Bidez joatean, egia, kolore ta arnas-billa ezta urrutitze joan: euskal lurrak eman dizkio eder-gairik naikoa. Erun gorria, biotz joana, muinoa bakar, odoi-zatiak, lagunaren itza, zelaiaren urdin, laifio nagiazen ertza, alde-rrai dabiltsan itxoak, euskal langille ta nekazariak, idiztarraren begitua, errekako uraren ibillia, sugar egartua, munkaren labana, eldu-miña, soiltasunaren magal ixilla: auetxek ditu kantagai, auekin eundu du opari-sorta, euskal lurreko gauza ederrez noski. Nun, izan ere, batzate oberik liliak kimatzeko?

Zorionak olerkari gazteari. Saia bite zelai orretan; betoz olako lanak ugari. Jainkoa goraltzeko ta gure euskeraren onerako.

A. Onaindia